


II. ERANSKINA

	BILBAO EKINTZA EPEL-REN DIRULAGUNTZAK Deialdia: EHUNGINTZAREN ETA ZAPATAGINTZAREN SEKTOREKO SALTOKIENTZAKO LAGUNTZAK
---	---

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BILBAO EKINTZA
EPEL-REN AURREAN**

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak, bere izenean edo enpresaren ordezkartzan (IFK:), zeinak helbide soziala/fiskala edo lantokia Bilbon duen, helbidean (telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa:).

HONAKO HAU ADIERAZI DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- a) Deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu, eta ez du Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan xedatutako onuradun izateko debekurik.
- b) Gaur egun egunean ditu Zerga Ogasunarekin, Bilboko Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga-betebehar guztiak, eta Bilbao Ekintza EPELri hori egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak kontsultatzeko eta biltzeko baimena ematen dio, beren-beregi aurka agertzen bada izan ezik. Horrelakorik gertatuz gero, dokumentu honen amaieran jasoko du.
- c) Onuradun gisa, Bilbao Ekintzari helburu berarekin lortutako dirulaguntza guztien berri emateko konpromisoa hartzen du, bai eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko ere, hala eskatzen diotenean.
- d) Deialdi honetako 4. eta 5. apartatuetan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen ditu. Pertsona juridikoen kasuan, beren-beregi adierazten du mikroenpresa edo enpresa txiki gisa kalifikatua izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.
- e) Deialdi honen esparruan aurkeztu du dirulaguntzaren eskabidea, eta, gainera, oinarrien 9. apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu du adierazpen honekin batera.
- f) Baimena ematen du prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoaren bidez egiteko.

....., 20...(e)koaren ...a

Sin.

****DATUEN BABESA**

Bilbao Ekintza EPELren Zuzendaritza Nagusiak, Bilboko Udalak erakunde honi bitarteko gisa agindutako administrazio-espeditenteen kudeaketaren esparruan, datu pertsonal hauek tratatzen ditu ahalmen publikoak gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat etorritz.

Interesdunak eskubidea du bere datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko, bai eta tratatzearen aurka agertzeko edo hori mugatzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko du: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001 Bilbo. Interesdunak, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea du. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide elektronikoa honetara: juridico@bilbaokintza.bilbao.eus

UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunak EZ du Bilbao Ekintza EPEL edo beste administrazio publiko baten esku dagoeneko dagoen dokumentaziorik aurkeztu behar; izan ere, EPELeke egoki diren dokumentuak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta behean dagoen laukitxoak markatuz interesdunak aurkakoa adierazten badu**. Hala bada, interesdunak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

Honako kontsulta hauek egitearen aurka nago (Bizkaiko Foru Aldundia - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra), honako arrazoi hauengatik:
